

KALBARIOKO ANDRA MARI

Doinua: "Zure errukizko"

1

Kalbarioko oi Andra Mari,
Jesusen Ama maitea!
Baietz emonaz lortu zenduan
Jainkoa-Ama izatea.
Isiltasunez ta maitasunez
hartu zenduan partea,
eskerrak, Ama, bete zenduan
behin emondako berbea.

2

Azken orduan entzun deutsozu
Kurutzetik Semeari,
gure ama be bazarala-ta
jarraitzeko baietzari.
Harrezkero Zu zaitugu ama
eta bideko gidari,
hagaitik pozik deitzen deitsugu
"Pazkoako Andra Mari".

3

Ederrik bada, ederrena da
amaren eginkizuna;
Ama Maria, zer ete zara
danok sortu gaituzuna!
Sufrimentuak asko dirala
areago maitasuna;
bere frututik ezagutzen da
amaren haunditasuna.

4

Zu Eleizaren Ama zaitugu
eta gu alkar-senide,
zure eskutik goaz aurrera
Aitagana bidez bide.
Erbestaldian zakiguz, Ama,
seme-alabon pozbide,
Aitarenean izan gaitezan
Zurekin zorionkide.

A.Martzel